730'gn. zenbakia
XV'gn. urtea

ARGIA

ASTEROKOA

Bidayen itunduba
(Franqueo concertado)

LOIOLA
B. L.

DONOSTIA, 1935'ko Jorailla 7 | Avenida, 32 - Ufutizkiña 12505 | Zenbakia 0,10. - Arpidea urteko 5,50

Miti Donea, zaintu Euskalerria

Astea

Peparrondoak ongi pustu-ta, ongi ... emateko, biarpen gozoz ... Zeit!... Gure anai ta adiskide ... Opaneko asulorretan ... sala, kale genun. Ezer esan ga-... ... ta gorde zitezigun. Bagene-... bere errua etanla, ta onetzek, ogia ... jarri ginuzen, bildurraz noski, ... eta noiz ate-ondoko opotzoak ... ote ziekiguten.

... ezer parratelz gerta; baña ... onel maitoari, bai. Iñork ez daki, ... baño, zenbat nalgabe trazo di-... ... ergitarako joyua izan-da, illun-... epoka. Joan zaizkiyo miñak, eta ... oso pozlutzen gera. Bañez ere, eus-... ...nako bere lanak garrantzia ... dabiltz Bizkai guziyan, egunki-... ... ta irratetzes beseta; on ... on an. Bego ba, egunalpean, ... illunak beñere utzi gabe.

* * *

Ez da erpeldiyan besterik ikusi. Ar-... ibili ondoren, azkenera-... lengo tiranaz utzi gaituzte. Urte ... biar txarrak iraztzeko zituz-... ... gelzpenak, abominian... ; bañan zenbaik ez da, ... bere onel eta geiberg gelditu ... ...

Osin etorri da, eguraldi txar baten ... bezela, askoren sudur-altzika, ... -arraunika, geyen-... ... Aitu biar zirala ..., bertera toki utzanbela ... ; ta orrela joan zaigu arte osoa, ... bestutako afaoparrak egin ...

Izan ol dute batzuek, beti arraldika ... gogua. Guk ez benepin. Na-... izardia zar bat paken, beretiat-... ... ta gurikak azarrez baño. ... zakarpurdiko tzoarreak, go-... aber-puntako pintzanak baño. ... tzinfatzen degu ikusitako go-... ...

* * *

Firi, firi... Ez da ori gurla. Pintza-... ... ditzaten digu.

Ate ... euskal-idazle izyatza ba-... ... Bizkayan sortuak, il-... ... bat, begi-aurrean azal-... digu.

Ez da opari txarra guretzat, ma-... baño erdi-perreko biar nai de-... Liburu auze, erdi-parr... ... dago, ... ordia, par-etza-... Guk ez ... elen-etenkako aye-... ... Gutzardunatan min!...

Paskuetan azaldu baitzaigun, artu-... geiyon zaineta geyago. Orduko ... degu, apal-apalian, armiarma-sa-... urrunde. Bitartean, geonen ... berena eyilirari!

Ayer bura etorra dauka ...: Firi, firi... Len idatzitako lanak, pi-... jarri-ta, irakurtzat ematen diz-... aipatutako idazle orrek.

Gogorat nai digu:

«Firi-firis
«fara-faras
zenenak non diran,
biyar ara!

* * *

Oratzen gaitu «Printzipea»-tik. Ez ... konigertua ... ! Bazan ... polzaki, ta jostorratz bat ... tarterik ez! Ala bete ta ...!...

«Lenbere, Emeteri Arrese jaunak ... Mokoroa jau-... ... idazki. Ez dira motelak oi ... abek. Arrese'ren itz-neur-... ederrean, murgildu leike ... egon giñan, den-dena bukatu ... arteraño.

Zabaltzekoa, andereño iraña, urre-... Kortajarena ta Arre-... baño askoz ... Lizarrandi ta ... zortak ... , gozo-guziyan ...

... etxerbatan, ... ekañaldiz azaldu zitzaigun. Jo-

NEKAZARI GAYAK

Nekazariak bera bizi dan baserria berea zergatik izan bear duan

Aurrena ikusi bear degu, emen nekazaritzan egiten dan era. Lurrean ez da lana egiten astea igaro lañean eta larunbatean etekiña jasoaz; gero-ra begira jardun bear da; askotan, urte bat edo bi (eta geiago ere bai) txarrak izan diralako, ezalo kentzen dembora ortan mantentzeko bear dan aimbat eta urte on balen zai egon bear izaten da lengo txarrak or-daintzeko; eta larre bat luberritu edo sagasti bat jartzean, lur ori gora-tzerako edo sagarra ematen asterako, begira zenbat urte bear diran. Be-raz, lan orretan gogoz ariko danak, bear du, gero bere lanen etekiña iñork kenduko ez dion seguranztzia.

Au da orain aurreko urteetan izandu ez dana.

Baserri bateko maiztarra ari da ler egiten, udara ta negu, txara ta otadiak aitzurtu; soro lur mekoak arria edo tupa atera ta gulenak lur ustel gozoz bete; sagasti ederra jarri; bide berriak egin eta lanak errastu; iru edo lau bei geiago edukitzeko era ere jartzen du. Egin dituben neke aundien indarrez ezurretan gogortu ta nagitu da, baño lana egiteko erraz-tasuna jarri du eta lurrak etekiñ ugaria alaa ematea irixi du; neke gu-zien saria jasotzera dijuan pozean dago.

Ontan, bere nagusiak ikusi du baserria balio aundikoa dagola ta ¿zer egiten du? ¡Saldu! Eta ¡zenbat aldiz maiztarrak ezer ez dakiala! Etxea erosi du, berak nekazaritzan salatu nai duen batek. Nagusiak, sal-du diskio lurrarekin batean maiztarrak urte askotan egin dituen lur on-tze edo mejorak eta onen neke izugarriak nagusiak bereganatu ditu pa-txara ederrean. Maiztar gizagajoa joan bearrean da; geroko itxaropen onaren pozean aimbeste bider izardiz busti duben lur arri azkeneko busti aldia malkoz eman eta badijoa... ¿Nora? Beste baserri bat arkitzen ba-du... oneneam utzia eta zikindua, ezer egitekotan txukuntzen gogor jo bea-rrekoa; baño ez du txukunketa ta lur ontze askorik egingo, ortarako go-goak ederki kendu dizkate orri ta ger taera ori ikusi duten gañerako guzi-ai; ondo edo gaizki, dauden bezela jarraituko dute lurrak, ez dijua iñor lanean nekatzera gero besteak kentzekotan.

Maiztarra bera erostun egiten bagan ere, an ordaindu bear izaten zi-tuan berak egindako lanak, nagusiak egin balitu bezela. Edo maiztarrak baserriari altxa dion balioaz nagusia jabetutzen da ezer ordaindu gabe, orain geyago balio duela eta maiztarrari errenta igoaz.

Naguziaren kasketa beste legerik ez baita izandu.

¡Zenbat bider egon dira baserri-tarrak botoak etortzeko beldurrez!

Orduan bai ibilli izan dituztela egoaizeak orbela bezela; ordun bai nagusiaren esena zintzo egin bear izaten zutela urrengo San Martiñetan lengo lekuan jarraitu nai bazuten.

¡Amaika nekazari utzi dute bere sasoia lenegi galduerazi dion neke, izardi, ta itxaropen bidezkoak usteka bean kendu ta eor konpons esan da. ¿Eta egintza oyek txartzat emateko altatzen aldituzute Enzikliakak?

Ortarako ez dago Enzikilka beurrik; Jaunaren amar agindu etara goa-zen ta an arkituko ditugu bidegabekeri oiek guziak gaitzertaitzen dituzten itzak.

Orain badatoz legeak oker oiel bideak itxi ta nagusi maiztarren ar-teko artu emanak zuzen bidean sartu nalean. Lege oyek aitortzen dute emejoras maiztarrarena dala ta galerazten dute lurra nola nai kentzea; baño emejoras neurtzen ain zaila da, geyenean, egiten duena, galduan ate-rako da.

Enagurra oneko nagusiak ez dira gutxi; maizter askori entzuten zaie: «Nere nagusia bañan oberik ezin izan diteke, baño... (odei beltz bat emen ere) sartzen ari da ta ez dakigu gazteak zer egingo duten.

Besterena beti besteren.

Nekazariak eduki bear du baserria betiko beretzat eta bere ondoren-goentzat izango dan seguranztzia. Ortara egingo du lana gogoz, altxako du baserria ta onduko da nekazaritza.

Ortara iristeko, baserriaren jabe berak egin bear du.

Nagusia berak lana egiteko noiz-bait beartuko dan baserri banaketan bizi diran maiztarrak, jakin bear dute urte askoz aurretik, noiz utzi bear duten, an dauden arte lasai lana egiteko zer egiten duten dakitela. Olako baserriak oso banakak dira.

Orain beste lege baten bearra dago, len esandako bidegabekeri oyek guziak zañetik moztutzeko, langille motarik bearrenekoa anparatzeko eta nekazaritzari aurrerapen aundia emateko: Au da:

Maiztarrari, bera bizi dan baserria erosteko eskubidea ta erraztasuna ematen dizkion legea.

Lege ori agintzen dute. Datorrela lenbailen.

BESTEA

EUZKO NEKAZARIEN BAZKUNA

Idazkaria nundik nora ibilliko dan

Azken batzarrean erabakitakoa be-tetzearren ona Murua idazkari jauna nundik nora ibilliko dan ill ontan:

Illaren 13'an, larunbata Zarautz'en; 17'an, asteazkena, Ordizia'n (Vi-llafranka); 22'an, astelena, Irun'en eta 27'an, larunbata, Elgoibar'en.

Nekazariak! edozer jakin nai dezu-tela, galdetu Murua jaunari.

IDAZKARITZA

tze biguna, oizedi zamurra, ta bete-beteko ederkuntza guztiyaz.

Ez dipegu ezilegizik esatera. Ito-rri bitez askotan gure begi-aurrera, uzpertu arteraño itzalotu nai ditugu-ta.

Oiartzun'go Euzko Nekazariak

Oiartzun'go Euzko Nekazariak antolatzen ari diran ALKARLA-GUNTZARAKO (Cooperativa'rako) bertako lanak egingo dituan lan-gille bat bear dute.

Iñork nai badu jakin bere lan, egin bear eta irabaziya, galdetu lezake Euzko Nekazarietan, dato-rren igande arte, au da, illaren 14 arte.

Naiz sedazko, lanazko eta algodoizko eun (tejido) mota guziak, bestek baño merkeago. Gizonezko ta mutikoentzako afopa egiñak. Gai guzietan aukera aundia.

Nueva Capital de Gipuzkoa

Loyola, 7 - San Marcial 32 ta 34

Anderekikoak

Zerbait ere aipa nuan lenagoko sa-leren baten. Baita galari zeatzago jarraitzea norbaiti abindu ere. Ja-rraitzea dagokit. Gaurkoan motrikoar emakume ben-benetako bik buruan ontan jarri didate, ikertzen etorri zaizkidanean.

Jel-aldez ari nai lutekenak dira. Aipa nuan «Kristar-ikasbide eguna»? Ari dira lanean. «Urrengo egin gene-zakeguna ere, nik esana. Auxe beren esate ta ikerpenaren zioa. Onlakoen gogo ona ikusita, ezin ba txilik egon. Baitez ere lagunak bai dituztela ja-kinda.

Ene Jaungoikoa! Zenbat eta zen-bat erritan degun gaur Euzkadin Emakume Abertzale Batza? Zenbat millaka emakume gure bazkun ontan beren izena emanak! Oien-geienean baña, bazkunaren etxe edo aretoa or-daintzeko illekoa bildu, ta... besterik ezer egiten ez dala.

Bazkunak elkartu, guzien buru dan batzorde bat izendatu, ta onen zuzen-bidez beste ekintza aundiago bat errex leikena da.

Eta uri txikietara juan bearrik ez da. Orra Donosti uri-buru ta asko leza kena. «Emakumeen etxea baño gau-za oizagorik ez dakit leiken. Aldi ba-tzutako beren lan aundia, agerian da-go; beste alderdik iñola ere egin ez duten ta egingo ere ez duten bezela-koa. Baña geiago, askozaz geiago le-zaketena. Al duten, ta asko dakiten emakumeak bertan diralako. Ez ba-ña oraingo izan.

Esan det ezin leikela donostiar emakumaen etxea baño gauz otzago-rik. Eder eta apaña bai; baña ekin-tza abertzalearen su epel gabea. Ez bertako bakoitza abertzale on ez da-lako; baña bai, gizartean maila ber-diñezko diran emakumak ekintza berdin bakar batean bildu nai izan diralako; eta au, emakume artean gizonezko artean baño ezñagoa da. Gizonezkoak ez ditun koska ta zalan-tzak ditu emakumeak; gizonezkoak begitzen ez dion gauz askori begitzen dio emakumeak, eta angatik, goikoak bekoari ta bekoak goikoari dion itza-la, arerio aundi izango degu emaku-me abertzale artean era bateko ekin-tza bakar baten aritzen ba-gera.

Garai abetan onela itz egiteaz zenbait mindu egin neuzke ezale ba-ten; baña uste det edozeñek altuko nabela baldin nere usteak argi azal-tzen asmatzen badet.

Nai da Gabon inguruan donostiar emakumak (bilbotar eta geiagok be-zela) egiten duten lana baño aundi ta ederragorik? Nai da garai artako aundi ta txikien batasuna baño eda-tragorik? Au baña, bakoitza bereaz dagolako da: daukana, ematen, eta ez daukana artzen. Adibide bat degu ba au. Gauza askotan leikena; ez da ba ekintza eginkor bat lortzeko, gaiñ gauzietan maila batekoa besteaz bat egiteko ezer ura billatzea besterik eta.

Jaungoikoak lagun nadilla, ta ze azaldu nalez nala. Urrengo arte.

EDURNE

Zinea ta krisisa

Zine txarrak gure Elis-Barrutian egiten dituan kalte ikaragarriak dira-la-ta, gure Gotzai Agurgarriak egin digun idazki marrazkua irakurri-edo dezute noski. Ez da, ordea, naikoa irakurri edo entzutea; gaitz orri bi-llatu bear zaio iturria, baita osakia jarri ere...

Eta nik esango ba-nizuteke «krisi-sa» dala zine gaizto oien iturria, po-rre edo egingo genuteke. Alaz ere nik serio-serio esango dizutet baietz, krisisak duela zine txarren errua.

Ola-errietan gerarok gure belarrie-tan durundu baten daramagun oiar-tzuna auxe dezute; «Krisisa» «Krisis gora ta «krisisa» bera. Larrialdi izuga-rriak jo gaitu; esnaka zearo azpiratu gaitu; lanik eza; dirurik eza; gizonik eza...

Lana, gutxi; lenerako gogoa, ez prankoegi; dirua, urri; nun eralgia, ugari; eta lengoak naikoa ez bai-genituan, berriak asmatzen beti. Larrial diari arpegi emateko gizon yaio bat bear, ta bera ez omen da ageri ...

Baiña krisisik aundiena, ezik go-rriena, ukapenik-eza: geure buruari ezertxo ere ukatu eziña, biotzeko gu-rari ta griña-egarri oro ase ta bete-bearra. Auxe krisisik kaltegarriena ta ezik askoren iturria.

Len aitatu ditugun zine txarren kal teai osakia jarri bearraz buruz entzun nien mutil-gazte taldetxo bati: kato-liko aberatsak sakrifizio pixka bat ba-lutzeke, au egiña legoke. Zine onak bear ditugu txarrai arpegi emateko; zine on bat txar bakoitzaren aurrez aur. Onetarako, ordea, dirua bear, diru asko. Aberatsak sakrifizio pix-kat balutzeke... Onen bear estuan gau dem aldi onetan miñgaiñean duten katolikotasuna poltzikoan ba-lutzeke...

Bai —erantzun nien— aberatsak eta aberats ez geran katolikook sakrifizio pixkat izatera, ori egiña legoke; min-gaiñean degun katolikotasuna bio-tzean bagenuke, aberatsen poltxiko —sakrifizio— bearrik ere ez genuke; ixipiko bat bakarra ere gabe gaurko zi ne txar guztiak onak genituzke. Zine txar bakoitzaren aurrez beste on bat jasotzera baño, lengo txarrak ontzea askoz errezago genuke.

Noren poltsikotik bizi dira zine txar oiek? Katolikoenetik, noski. Ikusleriak geienak edo guztiak katolikoak dira-zute, gure errietan beintzat; zenbat Jauna artzen dutenak asko la asko; eni ez nijoa zine orretara, zine ori ka-tolikoen begien duin ez dan artean katoliko bakoitzak esatea asko genu-ke, zine txar guztiak ontzeko, gure errietoan beintzat.

Nork du ba zine txarren errua, zi-ne-jabeak ala zine-ikusleak? Ikusleak zine onik ez dutelako dijoaz txarreta-ra, ala diote beintzat. Ortik, zine onen bearra. Zine-jabeen berriz ikusleak beartzen omen dute txarretara. Dirua asko eralgi duala zinea jasotzen; dirua beraganatu bear, eta zinia onak ema-ten ba-ditu, saloia utzik omen da. Di-rua bilduko ba-du, saloia bete bear; saloia beteko badu, zinia narrasa es-keñi bear... Zine-jabeak katolikoak, ikusleak katolikoak; baiña zinea txa-rra.

Au ola dalarik zine berriak jasotzea zertarako genuke?

Besteari eskatzen diogun sakrifizioa-ren jabe egin gaitezen; besteri eska-tzeu diogun katolikotasuna bakoitzak agertu dezagun, eta ondorena agertuko da. Gazteak: zerbait egin bearrean gera.

Mingaiña txil; egiñenak ots.

OLABURU

Urtean bein gutxienez

Judutarrai Jaunak esan zien: «Nisi manducaveritis carnem Filii Homi-nis...» Jainkoaren Semearen aragirik jaten ezpadezute, ta aren odolik eda-ten ezpadezute, ezerate biziko.

Badakizute beraz: Bizi nai badezute, nai ta naiez Jaunaren Korputza jan biar, nai ta naiez Jaunartzera juan biar. Noiz juan biar da ordea Jaun-artzera? Kristok etzun ezerik esan; juan biar zala, bakarrik. Eleiz Ama Deunak noiz ori neurtu ta agindu du. Ta Eleizak esaten dizu, al ba-dezu egunero jualeko; gutxiagotan nai badezu, astero edo illero; gutxienez urtean beiñ, Pazko garaian, ta ori agindu astunpian.

Begira gure mendi ta zelaiei. Oraiñ arte ilda bezela egon dira, zearo igar-tuta; sarri izarra-maindire zuri miria estalita. Aize epelak asi dira ordea ta ara, lorak erneitzen asi zaizkigu, zu-aitzak apaintzen, erreka baserrietako sastraka guztiak ostro berdez jozi-tzen: udaberria dator, da nunnai gaz-tetasuna ta alaitasuna bere aurretik zabaldu da. Ez al litzake negargarria, izate guztia berpizten ari danian gi-zona bakarrik illik gelditzea obena-ren illunpe gogorrian, pekatuaren ne-gu beltzean?